

DROGETEN

ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 275. zenbakia. 2019ko otsaila

Greba
morerako
prest



Haritzaren Eguna 2019

Zatoz kaka jantziz!

Martxoak 1
18:30ean

Santixapeko iturrian

ANTOLATZAILIAK
LAGUNTZAILIAK

Euskal
Birusa,
Elkartea



Ermuko
Kaitzango
aek



Eskolabarrir
Itasotzen



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Ekhi Velar.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Martxoaren 8ko greba
feministarako asanblada
irekia.

LAGUNTZAILEAK:

Jabi Vidal,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Udal Liburutegia
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Ermua BHI,
Oier Viteri,
Estibalitz González,
Asier Gómez,
Valentin Mugarza,
Sergio Nievas, Martxoaren
8ko greba feministarako
asanblada irekia, Kaltxango
AEK, Zoe, Naroa, Nahia Rojo
Ekhi Velar
eta Ermuko Udala.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ainhoa Garitagoitia
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Aratustek

Ehiztariak

Egun batian oldoztu jakun
danok ehiztara juatia,
handikan zerbait ekarten bazan
gero meriendatzia.

Hartu genduzan birigarrua,
zozua eta belia,
durdula, mingor, eskillazua,
okilla, txantxangorria.

Esan genduan Trabakura juanda
" Eran! " Sebastianari,
gero Ermuan gogoz guztiok
egin dezagun afari.

Gautu zan eta Artetan behera
umorez gentozanian,
zarata haundi bat bat-batian zan
aurreko sastra artian.

Batek oratu zion hankatik,
beste bik belarrietatik,
txikiak tripa azpitxik eta
haundiak lepo-lepotik.



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Oier Viteri (Italia)

ELKARRIZKETA5-7

Zoe, Naroa eta Nahia Rojo

ERREPORTAJEA8-9

Ermuko emakume zinegotziak

MALLABIAN ZER?10

Inauterik

ERMUAN ZER?12-13

Ermuko emakumeak grebarako prest

MOTZEAN14-15

Markos Gimeno Goya sarietan

ESKOLEN TXOKOA.....16

Ermua BHIko albisteak

KIROLZALE.....17

Asier Gómez igerilaria

IRITZIA18

"Punky de postal"

ZORION-AGURRAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

SAREAN GALDEZKA21

Eibarko ospitalak Ermuari ondo edo kalte?

MARTXOKO AGENDA .22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Oier Viteri

Oier Viterik Poloniara joan nahi zuen Erasmus bekarekin, baina Sizilian (Italia) amaitu zuen. Ennan bizi da, uhartearen erdialdean itsasoaren mailatik 900 metrotara dagoen herri txiki batean. Herri polita dela dio, oso kutsu italiarra duena, baina ez du bere burua bertan ikusten beka amaitu eta gero. Hori bai, momentuz denbora ondo aprobetxatzen du Ennan.

- Siziliako Enna herrian bizi zara. Nolako da?

Nahiko herri txikia da eta bi zatitan banatzen da. Goiko aldea Enna Alta bezala ezagutzen da eta behekoa Enna Bassa. Paisaia politak daude, baina nahiko eguraldi hotza egiten du. Arraroa da: uharte bat izanik eta Italiako hegoaldean egonik uste nuen demaseko eguraldia egingo zuela, baina ez da horrela.

- Nola sortu zitzaizun Ennara joateko aukera?

Erasmus a egin nahi nuen eta nire lehen aukera Poloniara joatea zen. Gustoko nuelako, beste barik. Gero, Italia zen bigarren aukera, eta Poloniakoa ez zitzaidanez egokitu, hona etorri nintzen.

- Zer ikasi duzu?

Euskal Filologia ikasten dut, baina hemen Filologia hispanikoa.

- Ennan unibertsitatea daukazu edo beste hiri batetara joan behar zara?

Unibertsitatea daukagu Ennan bertan. Ez da oso handia, pribatua da, baina badaukagu behintzat.

- Hara joan aurretik Siziliari buruzko zenituen aurreiritziak bete dira?

Eguraldi hobeagoa egingo zuela espero nuen. Etorri baino lehen hainbat argazki ikusi nituen eta harritu egin nintzen. "Nora noa!", pentsatu nuen. Baina gustora etorri nintzen. Ekintzak egiteko aukera gutxi dago, herri txikia delako, baina gustora nago.

- Nolako bizimodua dago Ennan?

Nahiko herri tradizionala da. Enna Altan bizi naiz eta iraganeko kultura mantentzen da hemen. Kale zaharrak daude eta eliza asko. Erljioa oso garrantzitsua da eurentzat eta ez dago lan asko. Hemengo italiarrerekin berba egiten konturatu naiz euretako asko kanpora joaten direla lan egitera, hemen ez dutelako aukerarik.

- Nola moldatu zara hizkuntzarekin?

Hasieran nahiko txarto, baina italiara erraz harapatzen da eta hobetuz joan naiz.

- Noiz arte egongo zara han? Ermura bueltatzeko asmoa daukazu?



Enna,
Italia



Ekaina edo uztailean arte egongo naiz hemen, ez nago ziur. Gero Ermura bueltatuko naiz, hori bai ziur.

- Zer da Ennatik gehien gustatzen zaizuna?

Euren kultura gurearen antzekoa da eta jendea oso gertukoa da. Autobusean bazoaz eta gazteleeraz berbetan zaudela entzuten badizute, nagusiak berehala hasten dira zurekin berbetan. Oso harreman ona sortzen da hemengo jendearekin.

- Eta gutxien?

Herria hain txikia izatea, gauzak egiteko aukerak asko mugatzen dituelako.

- Nolako da zure egunerokoa Ennan?

Klasea daukadanean klasea noa, eta bestela ariketa fisikoa egiten dut gimnasioan lagun batekin. Bestela, lagunekin gertzen naiz, juerga dagoenean juerga egin eta bidaiak egiteko ere aprobetxatu dut. Amsterdamen eta Berlinen egon naiz, eta Sizilia ondo ezagutzeko aprobetxatu dut baita ere.

Ekhi Velar

OINAK

LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
© 943 17 47 44

Zuri egokitzen den odontologia

La odontología que se adapta a ti

SAN PELAYO
DENTISTAS Y CLINICA DENTAL

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

943 17 04 04

info@clnicasanpelayo.com

San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

Proba-Leku

Ileapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A

Tel. 943 17 05 42



“Badaude zakila duten neskak eta bulba dute mutilak”

Zoe Centeno Fernández eta Naroa Rodríguez Sarasua zakila duten bi neska dira. Zok 8 urte ditu eta Naroak berriz 11. Betidanik jakin izan dute eurak neskak direla eta horrela adierazi izan dute bere bizitza osoan. Orain zoriontsu dira, gurasoek inoiz ez dute euren identitatea ukatu eta horrek asko lagundu du trantsituan. Ivan eta Sheila Zoeren gurasoek, eta Eskarne eta Jesús Naroaren gurasoekin egon gara. Nahia Rojo sexologoa, berriz, sexologia eta generoa lantzen duen Desira elkarteko kidea da eta, horrez gain, Zoe eta Naroaren bidelaguna da bide honetan eta horren berri eman digu.

- Zer da transexualitatea?

Entzutea eta gure seme-alaben sentimenduetan laguntzea besterik ez da. Nahiz eta ez izan ohikoena hau guztiz normala da, badaude neskak zakilarekin eta mutilak aluarekin. Ez da nahi izatearen kontua, jaiotzetik ondo dakite zeintzuk diren.

Nahia: Jaio aurretik genitala begiratu neskak edo mutila garen esaten digute. Transexualen kasuan genitalak ez datoz bat sentitzen duten horrekin. Cisgeneroak esan genezake bat datozela jaio diren genitalekin, hau da, emakumeak eta bulba edo gizonak eta zakila.

- Nola hasi zen guztia?

Ivan eta Sheila: Zoere-na jaiotzarekin batera (barreak). Arrazoitzeko gai izan zenetik azalartzen zuen bera dena: neska bat. Guk libreki utzi izan diogu bera den hori adierazten, baina gure beldurrak direla-eta ez

genuen hori ikusi nahi. 5 urterekin gauzak serio jarri ziren eta bere erritmoa errespetatuz bidean laguntzen joan gara. Egia da ez genekiela ondo nola bukatuko zuen guzti honek, ez genuelako ondo uler-tzen.

Eskarne eta Jesus: 4 urterekin edo lehenago Naroak barruan zerbait zuela adierazten hasi zen: bera ez zela mutil bat neska baizik. Zergatik ez genuen ikusten bera den bezalako, galdetzen zigun.

Nahia: Guk, elkarte moduan, hau txikitatik ikusten dugun zerbait da, nahiz eta batzuetan nerabezaroan edo nagusitan ere eman daitekeen. Ez dago adin trinkorik. Aniztasuna ere, bere osotasunean, hau izan daiteke.

- Inguruak nola hartu du?

I eta S: Familiak orokorrean oso ondo. Batzuei gehiago kosta zitzaion, baina egia esanda askori Zoek trantsitua egitea erabaki zuenean ez zien



harritu. Gelako lagunek ere ondo eraman dute, asko maite dute eta umeek guk baino aurreiritzi guxtiago dituztela irakatsi digute, nahiz eta agian bidean norbaitekin topo egin eta horrekin sartu daitekeen. Eskolan ere primeran, Berdindu Eskolak asko lagundu du honetan: formakuntza jasotzen, informazioa biltzen, eta abar. Etengabe gabil-tza ikasten.

E eta J: Orokorrean primeran, arazorik gabe. Ikastolan txikitatik ezagutzen direnez dena erreza goa izan zen, ez zuen inor ezustekoan harrapatu ho-

nek! Familian ere oso ondo hartu zuten.

N: Gure esperientziatik abiatuz esan genezake asko hobetu dela orokorrean. Garrantzitsua da inguruak onartzea. Ez hori bakarrik, errealitatea hau dela eta horrela izango dela onartzea ere. Ikastetxe batzuetan ez dute onartu nahi edo irakasle batek ez du ikusi nahi izaten, baina ez da ohikoena. Berdindutik 6000 irakasletik gora jaso dute formakuntza hau, izugarria da, hau ez da estatu mailan ematen. Familietan, berri-z, Chrysallis elkarte sortu zenean 8 familia

**“Ez da nahi izatearen kontua,
jaiotzetik ondo dakite zeintzuk diren”**

FUB Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Ervailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUUA

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

zeuden eta egun 100 baino gehiago dira.

- Zer irakatsi dizue trantsitu honek?

I eta S: Jendea aurreiritzirik gabe begiratzea, guraso zein lagun hobeia izatea eta pertsona hobeak izatea azken finean. Orain guk ere beste familia batzuei lagundu ahal diegu bide honetan. Honek bizi-tzako lezio erraldoia eman digu.

E eta J: Zoriontasuna, nagusiki.

- NAIZEN edo beste elkar-teek (Desirak, Berdindu Eskolak...) zer suposatzen dute zuentzat?

I eta S: Laguntza erraldoia da, hainbeste dugu

eskertzeko... Hasieran batez ere bakarrik sentitzen zara, galduta eta zer egin jakin gabe. NAIZENek maitasun eta enpatia erakutsi digu, eta gure seme-alabak ulertzeko laguntzeko eta bukatzeko formazioa jaso dugu. Gainera, lagun oso onak egin ditugu, bai gure alabek eta bai guk.

N: Errealitate hau eza-gutzeko ona da beste familia batzuk ere ezagutzea eta enpatia hori sentitzea. Laguntza hori egotea oso baliagarria da. Sare bat lantzea garrantzitsua da bakarrik ez sentitzeko.

- Martxoaren 8ra begira zer nahi duzue manifestatu edo azaleratu?

I eta S: Genitalak albo batera utzita, gure alabak gainontzeko bulbadun neskak bezalakoak dira, bulba edo zakila izan. Genitalek ez dutelako euren identitatea definitzen.

E eta J: Berdintasuna, genitalek ez dute identitatea definitzen. Neska, zakila edo bulbarekin, neska da.

N: Gauza asko, baina gehien bat aniztasuna da. Hau emakumeen borroka da eta emakumeen artean aniztasun asko dago, anitzak gara. Emakume guztiak desberdinak gara, baina helburu berberarekin.

- Gizartean aldatzeko gauzak daudela uste duzue?

I eta S: Hainbeste gauza aldatuko genituzke! Inork ez du beste pertsona bat den horrengatik, zoriontsu izateagatik alegia, epaitzeko eskubiderik. Lege batzuk aldatzeak euren ongizatea erraztuko lukete, adibidez NANean izena eta sexua aldatzeko oztoporik ez jartzea eta osasun zerbitzuetan tramite guztiak arintzea (tratamenduentzako probetan eurek hala nahi badute). Askok dira aldatuko



Nahia Rojo

genituzkeen gauzak eta NAIZEN elkarte hau guztia lantzen ari da.

E eta J: Transexualen kasuan erraztasun gutxiago dago burokraziaren aldetik, NANean izena eta sexua aldatzerako orduan, adibidez. Baina, gutxika lortzen goaz.

Nahia: Gizartea gu gara, beraz, guk egin behar dugu aldaketa. Aldaketa hauek egiten baditugu, gizartean eragina izango dute. Nik aldatzen badut, nire ingurua aldatuko da eta, azken finean, gizartea.

Amaitzen Arginzoniz



Zoe (Sergio Nievasen argazkia)

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiatarre, 2 · 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

2012ko BILBOKO
TXORIZO TXAPELKETAN
BIZKAIKO
TXAPELDUNAK

PROBLEMU 3-943170563
ERMUA

ZERMIK

SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Ermuko emakume zinegotziak

Ez bat eta ez bi. Hainbat dira gure herrian Udaleko zinegotzi kargua izan duten emakumeak. Zerrendatuta agertzen dira antzinakotasun gehien dutenetatik legealdi honetan aritu izan diren aurpegi berrietara.

Emakumeak kargu publikoak betetzen ikustea demokraziaren eskutik etorri zen. Diktadura garaian andrazkoak etxe esparrura mugatu zituzten bezala, aro berrian sartzen ginen seinale izan zen haiek politika eta herrigintzara egindako jauzia. Ermuko emakume zinegotzien datuei erreparatuta, 4 urteko legealdi bakarria egin du gehiengoak, pare bat batek baino gehiagok... baina hiru emakume dira rankinean

aurrenengo daudenak: Natividad Alonso, M^a Asun Ardanza eta Arritxu Araiztegi, seina legealdi beteta dituzte. Aipagarria ere II. Errepublika garaian Ermuan zinegotzien zerrendan dagoen Irene Baskararen kasua, jatorriz eibartarra den 44 urteko andrazkoa. Santos Suinaga alkate zela, 1933ko apirilko hauteskundeetan osatutako udalbatzean hartzen du parte, 9 zinegotzitik bera izanik andrazko bakarria eta Bizkaian ere bakarrenetako.



Zinegotzi izandakoak beste emakume batzuekin lan-taldeetan

Datuei tiraka jarraituz, 1979ko apirilko lehenengo hauteskunde demokra-

tikoetan, 24 zinegotzitik 6 andrazkoak dira, udalbatzaren laurdena osatuz. Urteetara portzentajea igoaz joango da eta 2007-11 legealdian 16tik 9 dira, erditik gorakoa. Izenak irakurtze hutsarekin, batzuk gaur egun karguan egon ez arren ere, udalbatzarekin lotzen jarraitzen ditugu. Lorratza lagatzen den seinale! Zalan-tza barik lau, zortzi edo urte gehiagoko jardun publikoa intentsua eta ardu-raz betea suertatzen da horretan aritutakoentzat, sigla eta ideologiaren morroi, kritikatuak sarritan eta ez beti behar bezala errekonozituak.

Estibalitz González



1987-91ko legealdiko zinegotzietako batzuk, Francisco Berjón alkatearekin

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

IZENA	ALDERDIA	LEGEALDIA
Irene Bascaran Alberdi	EAJ	1933-37
Maritxu Malkorra Zubimendi	EAJ	1979-83
Begoña Vesga Allende	PCE PCE EB/IU	1979-83 1983-87 1991-95
Arrate Egia Elorza	PCE	1979-83
Josefina Urkijo Zuazua	Candidatura Popular Ermua	1979-83
Carmen Biain Santiago	Candidatura Popular Ermua	1979-83
Espe Espín Ondarra	HB	1979-83
Mari Carmen Acebes Quiñones	PSOE PSOE	1983-87 1987-91
Agurne Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi	EAJ-EA EA	1983-87 1987-91
Natividad Alonso Estalayo	PSOE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE	1987-91 1995-99 1999-2003 2003-07 2007-11 2011-15
Soledad Ruiz Lucio	PSOE	1987-91
Mari Nieves Antxustegi Azpiri	EAJ	1987-91
Arritxu Araiztegi Arrizabalaga	EAJ EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA	1987-91 1991-95 1995-99 1999-2003 2011-15 2015-19
M ^a Asun Ardanza Telleria	EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE	1987-91 1991-95 1995-99 1999-2003 2003-07 2007-11
M ^a Jesus Azkoitia Corrales	PSE-EE	1991-95
Carmen García García	PSE-EE	1991-95
Espe Urreta Espín	HB	1991-95
Ana Crespo Nuño	PP PP	1995-99 1999-2003
Mónica Domínguez Rodríguez	PP	1995-99
Inés Fernández Iglesias	PP	1995-99
Berta Abelleira Teijeiro	PP	1995-99
Nasta Castañeda Ruiz	EB/IU	1995-99
Oihane Mallagarai Revilla	HB	1999-2003
M ^a Angeles Gorrotxategi Arrizabalaga	EAJ-EA EAJ-EA	2003-07 2007-11
Maidier Totorika Olaizola	EAJ-EA EAJ-EA	2003-07 2007-11
Leire Zapico Reol	PSE-EE	2007-11
Patricia Alvarez Velasco	PP	2007-11
Virginia Arroyo Aburto	PP PP	2007-11 2011-15
Rosa M ^a Caballero Rubio	EB/B EB/B	2007-11 2011-15
Eva M ^a Fernández Pajuelo	EB/B	2007-11
Lorena López García	PSE-EE	2011-15
Mónica Marín Penuelas	PP	2011-15
Silvia Serrano Gómez	EAJ-EA	2015-19
Oihane Suárez Conde	Ermua Ahal da	2015-19
Beatriz Gámiz Mata	PSE-EE	2015-19
Rosa M ^a Cid Seara	PSE-EE	2015-19
Mireia Arginzoniz Garitaonandia	EH Bildu	2015-19
Hiart Redondo Uruña	EH Bildu	2015-19

Inauteriak zain

Otsailaren 23tik martxoaren 5era arte mozorroak izango dira protagonista Mallabiko kaleetan. Inauteriak datoz eta, horretarako, Mallabiko Udalak hainbat ekintza antolatu ditu.

Otsailak 23, larunbata (Txitxiburduntzi eguna)

19:00 Txitxiburduntzia eta txokolatada Trabakugoiko tabernan

Martxoak 2, larunbata

20:00-22:30 Mozorro erromeria plazan Gauargi taldea-ekin

Martxoak 5, asteartea (Karnabal eguna)

14:30-16:00 Potxin eta Patxin pailazoak: zirkoko izar-
rrak, eskolan

16:30 Txokolatada frontoian

16:30-20:30 Erromeria frontoian, DJ Txurrurekin

18:30 Playback -Mozorro lehiaketa

OINARRIAK

Lehiaketarako izen-ematea frontoian asteartean bertan 16:30etatik 17:30etara edo liburutegian azken eguna martxoak 1

Talde edo pertsona bakoitzak abesti bakarra aurkeztu dezake USB baten

SARIAK

12 URTETIK BEHERAKOAK

Bakarka edo bikoteka	Taldea
1. 60 euro	1. 120 euro
2. 30 euro	2. 60 euro

12 URTETIK GORAKOAK

Bakarka edo bikoteka	Taldea
1. 100 euro	1. 200 euro
2. 50 euro	2. 100 euro



FRONTENIS

MALLABIKO FRONTENIS TXAPELKETA

IZEN EMATEA: OTSAILAREN 28ra Arte .

TELEFONOA: 669028718

BAZKIDEAK

8 euro + 1 jokaturako partidu bakoitzeko

EZ BAZKIDEAK

8 euro + 2 jokaturako partidu bakoitzeko

Partiduak buruz-burukoak izango dira

Liga sistema bidez jokaturako dira MARTXOA eta MAIATZA bitartean

-Mailaren arabera, 8 jokalariz osaturiko taldeak egingo dira

A.D. MALLABIA F.T

MALLABIKO UDALA



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

solozabal tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEN KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

FORD KONDIA partikularren auto-salmentan **LIDERRAK 2018an** Eibar eta Ermuan



Europako 2019ko
Urteko Autoa-n
FINALISTA

ESKERRIK ASKO



BEHERAPENAK
OTSAILAREN 28ra
ARTE

8.500€ -ra ARTE*

* Kontstatu kontzesionarioan auto bakoitzari egokitutako baldintzak eta beherapenak



KONDIA
www.fordkondia.com

FORD KONDIA (EIBAR)
Otaola Etorb., 22. 20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK (IURRETA)
Santa Maña Auzoa, 19. 48215 Bizkaia
T. 946 815 569

Ermuko emakumeak grebarako prest

Martxoaren 8an greba feminista deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak. Ermuan ere emakumeek planto egingo dute eta greba feministak antolatzeko asanblada irekiak hainbat ekintza antolatu ditu egun bereziko. Ostiraleko 18:00etan biltzen diren Emakumeen Topalekuan eta sare sozialetan ere badute presentzia: Facebooken 'M8 Greba Feminista Ermua' eta Instagramen 'm8ermua'.

- Zer da Martxoaren 8ko greba?

Urtero, Martxoaren 8an mugimendu feminista hainbat aldarri egitera irten da. Hau ez da kontu berria, ibilbide luze baten ondorioa da. 2017an Argentina 'Ni una menos, vivas nos queremos' goiburuarekin mugimendu bat hasi zen eta herrialde batzuk grebara batu ziren; 2018an herrialde gehiago elkartu ziren, baita Euskal Herriko mugimendu feminista ere; eta 2019an bigarren urtez greba egingo dugu.

Greba feminista da, soldatapeko lanetik haratago doalako. Ez da ezagutzen dugun ildo beretik doan ohiko greba orokorra, emakumeon soldatapeko zein doako lana kontuan hartzen baitu. Bizitzako esparru guztietan kokatzen da eta zapalkuntza guztiak barneratzen ditu: enplegua, doako lana, sexualitatea, kontsumo erdua eta abar.

- Zein izango da greba-


ren ardatza?

Greba egiteko arrazoiak soberan ditugu. Hamaika badira ere, aurtengo greban, besteak beste, zaintzaren gatazka azaleratu nahi dugu. Zaintza lanaren ardura emakumeoi egokitu zaigu. Guztion eskubidea den lan zama hori eta sistema sostengatzeko ezinbestekoa den hori, emakumeon bizkarraren jausten da. Batetik, etxeetan egiten den ordaindu gabeko lan hori, gutxietsia eta errekonozimendu barikoa, eta bestetik lan merkatuan egiten dena, lan eskubide berme murriztekin, berriz ere errekonozimendu sozial gutxiarekin eta prekarioa.

Emakumeok planto egiten dugunean mundua gelditu egiten dela erakutsi nahi dugu. Izan ere, hausnarketarako greba da.

- Zer eskatzen duzue?

Kapitalismoari planto, gerrari planto, kolonialismoari planto, heteroarruari planto, patriarka-



tuari planto!

Bizitzak erdigunean jarri nahi ditugu. Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu eta zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu. Indarkeria matxistaren, heteroarraren, arrazakeriaren eta lan prekarioen (gehiena emakumeok jasaten dugulako) aurka egiten dugu.

Kontsumo greba izango da ere bai. Hausnarketa zabaldu nahi dugu kontsu-

mo eredu arduratsu eta jasangarri bat garatzeko. Kontsumitzen dugunean ekoizpen eredu bat edo beste sustatzeko boterea dugu eta hori oso garrantzitsua da.

- Nola antolatu zarete Ermuan Martxoaren 8ko greba prestatzeko?

Asanblada irekiak egin ditugu. Taldean emakume anitzak gaude, adin ezberdinetakoak (belaualdien arteko harremanak sustatu ahal duena) eta

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es





grebaren ardatzekin bat egiten du asanblada irekiak. Izan ere, zaintza, enplegua, kontsumoa, pensiodunak eta ikasleak dira grebaren ardatzak. Urtarrilaren amaieran hasi ginen batzen eta Martxoaren 8a iritsi arte astero elkartuko gara ostiraletan 17:00. Esan, gainera, asanbladara etortzen diren lagun batzuk hainbat kolektibotatik datozela, baina beste batzuk maila indibiduallean etorri direla. Bestetik, badakigu emakume batzuentzat zaila dela asanblada irekietara etortzea, baina harreman horiek lotzen saiatzen ari gara.

- Nola egin daiteke bat grebarekin?

Modu ezberdinak daude. Lantoki eta ikasgeletan greba egin daiteke bertara

joan barik; zaintzeari utzi eta, hori irudikatzeko, amantala balkoian eskegi; besoko morea ipini, grebarekin bat egiten duzula adieraziz; langileen esplotazioaren ikur diren enpresa handietan kontsumitzeari utzi; edota mobilizazioetan parte hartu.

Kontsumo greba den heinean merkatariekin eta tabernariekin hitz egiten ari gara, herrian zein modutan egin daitekeen kontsumo greba adosteko. Espero dugu, momentu batzuetan gutxienez, euren negoziak ixtea. Bestetik, ateetan amantalak eskegitzeko proposatu diegu eta banatuko dizkiegun kartelak jartzeko grebarekin bat egiten dutela erakusteko.

- Herritarrei antolatutakoaren berri emango diezue aurretik?

Otsailaren 28tik aurrera mahai informatiboak jarriko ditugu Patxi plazan eta eskuorriak, besoko moreak eta txapak banatuko ditugu bertan. Ahal duenari euro bat eskatuko diogu txaparen truke, izan ere, autofinantzatu egiten den mugimendua da hau. Gainera, mahai horietan edozein zailantza argituko diogu jendeari eta nahi duenak grebari atxikimendua erakutsi ahal izango dio.

- Zein da Martxoaren 8rako prestatu duzuen egitaraua?

11:00etan amantal aldarrikatzaileekin ekintza bat egingo da Martxoaren 8ko plazan. Zuen amantalak ekarri eta bertan greba egiteko dituzun arrazoiak adierazi.

12:00etan, toki berean, elkarretaratzea egingo da.

13:00etatik aurrera presentzia egongo da plazan egun osoan 19:00etako manifestaziora arte. Ermuko emakume guztiak gonbidatzen ditugu gurekin bat egiteko eta eztabaidak, tailekorrak eta ekintza ezberdinak antolatuko dira (kartelak egin...). Gainera, bazkari autogestionatua egingo da.

19:00etan, esan bezala, elkarretaratzea eta manifestazio zaratsua egingo da herriko kaleetan. Azkenik, ekintza sinboliko batekin amaituko dugu eguna.

Emakumeok gaude deituta grebara, eta gizonen papera zaintzaren ardura hartzea izango da, besteak beste. Zaintza-gune komunitario bat antolatuko da herrian greba feminista babeteko.

Ekhi Velar

esanline[®]

+ @ + TV +

☎ 846 080 010
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua
💻 esanline.es

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

BERBETAN JARDUNALDIAK MARTXOA ETA APIRILA BITARTEAN

Martxoaren eta apirilaren bitartean egingo diren Berbetan Jardunaldien prestaketa lanak martxoaren daude. Egitasmoa 2.000 jarri zen martxoaren eta aurtengo edizioaren egitarau bete eskaintzeko asmoa dute antolatzaileek. Apirilaren 3an, adibidez, Golazaren telesailaren kideak egongo dira Antzokian. Gazteei zuzenduriko ekitaldia izango da, baina Berbetan Jardunaldiak irauten duten bitartean guraso euskaldun eta ez euskaldunak, emakume feministei (Martxoaren 8a kontuan hartuta) eta beste hainbat kolektibori eskainitako saioa egingo dira.

HARTZA EGUNA MARTOXAREN 1EAN

Hartza Eguneko kalejirak moldaketa bat izango du aurten. Izan ere, irteera tokia aldatu da eta aurten Santixapeko iturritik hasiko da.



Markos Gimeno Goya sarietan

Sevillan ospatutako Goya Sariaren 33. edizioan aipamentxo bat egin zitzaion aurten zendu diren interpretari, tartean Markos Gimeno Vesga ermuarrari. Ekitaldiko pantalla erraldoian eta Markosen argazki baten azpian "Actor y documentalista" irakur zitezkeen. James Rhodes piano-jole eta idazle britainiarra izan zen une hori zuzeneko musikaz edertzeko ardura izan zuena, kasualitatez Markosek estima handian zuten idazlea.



Korrika apirilaren 13an iritsi da

21. Korrika apirilaren 4ean Garesen hasi eta apirilaren 14an Gasteizen amaituko da. 'Klika' goiburua izango du aurtengo edizioak eta José Luis Álvarez Enparantza 'Txillardegí' omenduko dute. Ermutik apirilaren 13an sartuko da 15:30ak inguruan, Eibartik, eta Mallabira joko du 16:10ak aldean.

Kaltxango euskaltegiak Ermuko eskolekin eta Mallabikoarekin elkarlanean Korrika txikiak anto-



latuko ditu apirilaren 12an, eta Korrika Kulturala ere prestatzen ari da martxoaren eta apirilaren Ermua eta Mallabiko hainbat eragilerekin batera eta Udalaren laguntzarekin. Korrikaren aurkezpenak martxoaren 22an Mallabiko Kontzejuzaharrean eta martxoaren 29an Ermuko plazan egingo dira.

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

Bitsi-denda Tailor propioa Erloju-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com · joyeriasenen@gmail.com

Neskato zientzialari

Otsailaren 11an, Emakume eta Neskato Zientzilarien Nazioarteko Eguna ospatu zen Ermuan. Emakumeek ikerketa lanetara ailegatzeko oraindik dituzten oztopoak bistaratzea eta erreibindikatzea asmoa duen egunaren harira, ekintza desberdinak eskeini zitzaizkien Merkatu Plazara gerturatu ziren eskolaumeei, neskak gehien bat. Ermuko Udaleko Toki Garapeneko eta Emakumearen Sailak elkarlanean antolatutako ekimenak, Elhuyar Fundazioaren zientzilarien laguntza izan zuen. Pozik eta entusiasmo handiz aritu ziren herriko ikerlari txikiak, "Ooooh!" eta harridurazko espresio ugariaren artean, hainbat esperimento koloretsu frogatu ostean.



LABURBIRA MARTXOAREN 21EAN EGINGO DA

Ermuak Laburbira jasoko du martxoaren 21ean 20:30ean zine-klubaren barruan. Euskarazko film laburren zirkuitua da Laburbira eta hainbat pelikula ikusteko aukera egongo da herrian. Aurten Ane Zuazubizkar 'Erroak' filmeko zuzendaria izango da gonbidatua.

Irakurri, gozatu, oparitu' martxoaren 18tik maiatzaren 31ra

Euskaltzaleen elkarteek, Udalek, liburutegi publikoek eta liburu dendek elkarlanean 12. urtez antolatuko dute aurten IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU egitasmoa. Martxoaren 18an hasi eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Iazko balorazioa oso ona izan zen eta aurten Euskal Herriko 45 herrik abiatu dute IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU. Egitasmoaren helburu nagusiak dira irakurzaletasuna bultzatzea, literaturarekin gozatzea eta gozaraztea, irakurtzeak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez. Horregatik, prozesu aberasgarria eta parte hartzaileentzako abantailak proposatzen dira.

Hiru pauso bete behar dira parte hartzeko. Batetik, irakurri eta, horretarako, liburutegira joan eta euskarazko edozein liburu maileguan hartu behar da. Bigarrenik, gozatu. Liburua irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete behar da liburuari buruzko iritzia jarriz. Fitxa betetzean, irakurleak erosketaxekea jasoko du hitzartutako dendan erabiltzeko. Eta azkenik, oparitu. Azken pausoa, liburu oparitzea da: lagun bati, senide bati edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako erosketaxekeak, euskarazko beste edozein liburu %35 merkeago erosteko aukera emango du. Horrez gain, apirila eta maiatza bukaeran, liburutegi bakoitzean 30 euro balio duen txeke baten zozketa egingo da, hile horretan irakurle fitxa bete dutenen artean. Txeke berezi horrek, besteek bezala, euskarazko liburuak erosteko aukera emango du. Erosketaxekeak liburu dendan erabiltzeko epea ekainaren 15era artekoa izango da.

XII. PIROPO LEHIAKETA

Ermuko XII Piropo lehiaketa dagoeneko martxan da! Interesatuak hiru modutan har dezaketen parte: lehiakideak berak piropoa idatzi eta bere datu pertsonalekin batera (izena, adina eta telefonoa) zuzenean euskara@udalermua.net posta elektronikora bidaliz, liburutegian egongo den kutxatxoan sartuz edota Whatappa 616 02 75 85 telefonora bidaliz. Azken eguna martxoaren 11a izango da.

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299



ERMUA BHIko IKASLEEN ARRATSALDEAK HAUSPOTUZ

2018-2019 ikasturtean Ermua BHI, HAUSPOA proiektuan murgiltzeko lehen pausuk eman ditugu irakaskuntza prozesuan aurrera egiteko asmoz.

Zertan datza?

Goizean ikasgai desberdinak lantzen ditugu baina, arratsaldean (astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan), ordu eta erdiz beste erabateko ekintzak egiten ditugu.

Esate baterak, HAUSPOA medio, irakaslearen laguntzaz baliatuz, errendimendu akademiko-arekin lotutakoak:

- Errefortzuak: ikasleek ikasgai ezberdinetan zailtasunak edota zailtzak izanez gero.

- Gai atzeratuak gainditzeko jarraipen pertsonalizatua.

Eta bestetik, era ezberdinetako tailerrak (euskaraz edo ingelesez denak). Tailer hauetan ikasleek intereseko hainbat alor jorratzen dira: batzuk informatikarekin lotuak, beste batzuk kirola, hizkuntzak, teknologia, musika eta abarrekin, hala nola, bizikletak konpontzeko tailerra, alemana, dantza, gitarra, pilota, pilates, *cooking*, birziklaia eta bitxigintza...

Tailerrok ikasleek interesen arabera aldatu edo jarraitzen dute.

Ikasle guztiak dute edozein tailerretara joateko aukera, alde aurretik apuntatuz gero.

Horrez gain, Informatika gela eta liburutegia zabalik egoten dira, etxerako lanak edota talde lanak egiteko, beti ere irakaslearen laguntzaz.



ERABILERA ANITZERAKO JOLASTORDUA



Urteetan zehar, gure ikastetxeetan nabaritu izan dugu ikasleek futbolera soilik jokatzen dutela. Egoera honi buelta emateko asmoz, esperientzia bati ekin diogu.

Irakasle batek gidatuta eta ikasle boluntarioen laguntzaz, joko edo lehiaketa batzuk antolatzen dira, sariketa sistema batekin. Egunero, gutxienez hiru kirol ezberdinetan parte hartzeko aukera dute gure ikasleek.

Horrela, gure atsedenaldietan gazteek futbolaz aparte, beste joku batzuetan jolasteko eta disfrutatzeke aukera dute.



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Asier Gomez, igerilaria:

“Tximeleta-estiloa da nire espezialitatea”

Asier Gomezek 15 urte besterik ez ditu, baina bidea egiten ari de igeriketan. Lehen besakadak Ermuan eman ondoren, Eibarko taldean dabil orain, eta astero ia egunero joaten da alboko herrira entrenatzera. Esan daiteke uretan ematen duela denborarik gehiena, hor sentitzen baita eroso. Denboraldi honetan hainbat erronka ditu aurretik, baina momentuz afizio moduan hartzen du igeriketa.

- *Nola hasi zinen igeriketaren munduan? Noiz?*

Txikitari hasi nintzen, 3 urterekin. Hasiera batean Ermuan egiten nuen igeri, baina orain dela hiru urte Eibarko taldearekin hasi nintzen. Futbolearen ere egiten nuen ordura arte, baina goiko mailan jokatu ezin nuenez, igeriketa probatu nahi nuen galdetu zidaten. Urtebetez probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan.

- *Zergatik joan zinen Eibarko taldera?*

Bi aukera nituen: Eibarren egitea edo Durangon. Orduan, Eibarrera joatea erabaki nuen.

- *Ez zeneukan Ermuan jarraitzeko aukerarik?*

Kontua da Ermuan ez dagoela ni lehiatzen naizen mailan aritzen den talderik. Beraz,

beste toki batean jarraitzea behartuta negoen.

- *Zein txapelketatan lehiatzen zara?*


Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan lehiatzen naiz, baina pixkanaka-pixkanaka Euskadiko Txapelketan ibiltzeko lanean ari naiz, saiatzen behintzat. Nire erritmora noa.

- *Igeriketa estilo guztietan aritzen zara edo estiloren batean espezializatuta zaude?*

Estilo guztiak egiten ditut, baina tximeleta-estiloa da nire espezialitatea. Denak probatu ondoren esan dezaket ondoen aritzen naizen estiloa dela.

- *Kanpotik begira, behintzat, estilo teknikoena dela ematen du.*

Besoak gorantz igo behar dira eta hankekin ere gorantz



eman behar da, biak batera.

- *Nolakoak izaten dira zure entrenamenduak? Zenbat aldiz entrenatzen duzu astean?*

Astean sei aldiz entrenatzen dut, astelehenetik larunbaterara. Normalean bi ordu edo bi ordu eta erdiko entrenamenduak izaten dira; eta astelehen eta asteazkenetan entrenamendu fisikoak ere egiten ditugu, hau da, gimnasioko lanak, eta egun horietan hiru ordu eta laurdeneko entrenamenduak izaten dira.

- *Lehiaketak noiz izaten dira?*

Hilean behin lehiatzen gara. Normalean Gipuzkoan izaten dira eta entrenatzaileak aukeratu ematen digun non lehiatu eta non ez.

- *Zer moduz doa aurtengo denboraldia?*

Orain dela pare bat aste Gipuzkoako Txapelketa izan genuen Tolosan eta ahal nuen gutzia jaitsi nuen nire denbora. Taldeko batzuek dominak irabazi zituzten, nik ez, baina orain dela urtebete irabazi nituen batzuk (Tolosan 100 metro tximeletan urrea lortu nuen, nire adineko bakarra izan nintzelako lehiari; eta Legazpin 100 metro estiloetan).

- *Zeintzuk dira zure helburuak aurtengo denboraldiari begira?*

Nire markak ahal dudan gutxia jaitzea espero dut eta Euskadiko Txapelketan parte hartzeko eskatzen duten marketatik gertu geratzea. Etorkizunera begira, Euskadiko Txapelketan zerbait irabaztea gustatuko litzaidake.

Ekhi Velar



OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitartekoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Iberikoetan espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ileapaindegia

Silvia

peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

"Punky de postal"

Ez daukat denbora ezertarako, zerbait gaizki egiten ari naiz", esan zidan lagun batek, arnasestuka, kalean topo egin genuenean. Korrika zetorren non-baitetik eta korrika zihoan non-baitera, ez nion oso ondo ulertu nondik zetorren ezta nora zihoan. Zerbait gaizki egiten ari denaren susmoa zuela esan zidan, egun batetik bestera gero eta larriago ibiltzen baita, eginbeharrak ezin amaituta, heldu beharreko tokietara ezin ailegatu... Beti korrika eta presaka. «Ez daukat denbora seme-alabekin jolasteko, ez lagunekin kafe bat hartzeko, ez mendira joateko...» esan zidan. «Etorriko dira garai hobeak», esan nion, haren estutasuna lasaitu nahian, baina biok badakigu esan nuena faltsukeria bat zela, geure burua engainatzeko erabiltzen duguna. Izan ere, garai

hobeak etorri beharrean, beti baitatuz gainera zeregin piloa eta beti geratzen baitira bete gabe beste hainbat eginbehar. Gauza askori erantzun behar diegu egunean, eta gainera, azkar, momentuan...

Agian ez da bera gaizki dabilena, gizartea bera da nire laguna zoro moduan bizitzera kondentzen ari dena. Artikulu hau idazten nengoen bitartean Evaristok abesten duen "Punky de postal, punk de escapatate. Moda punk en Galerías..." abestia jarri dut. Eta bai, arrazoia zuen Evaristok, postala eta erakusleioa da neurri handi batean gure egungo gizartea. Hustu egin ditugu hitz asko, hustu egin ditugu irudi eta kanta asko. Azalean askoz erosoago gabiltza gaien sakontasun zail eta deserosoan sartuta baino.

Nire laguna, bide batez esanda, emakumea da, eta oroko-



Jabi Vidal

rrean guztiongan eragina duen gizarte honen erritmo madarikatuaz gain, berari plus bat erantsi diote, bere lanaz gain, etxeko eta umeen ardura gehiena berak daramalako oraindik, besteak beste. Zerbait gaizki egiten ari gara bai, baina ez gutariko bakoitzak bakarrik, arazoa, gizarte honen egitura eta balioetan dago.

“

*Gauza askori erantzun behar diegu egunean,
eta gainera, azkar, momentuan...*

”

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



Otsailaren 5 eta 14an
Zorionak Luka eta Claudia. Ez galdu inoiz daukazuen irribarre polit hori. Izugarri maite zaituztegu! Aita eta ama.



Zorionak Ekia!!! 6 urte neska haundi!! Muxu pila familia osoaren partez!!



Otsailaren 4an
Zorionak Olaia zure 8.urtebetetzean. Muxu asko etxekoan partez, asko maite zaitugu! Ondo pasa eguna!!



Otsailaren 12an
Zorionak Mare zure 9. urtebetetzean! Patxo asko eta besarkada erraldoi bat etxekoan partez. Asko maite zaitugu, polit hori!



Martxoaren 1ean
Zorionak Telmo zure 7. urtebetetzean! Segi ingurukoak alaitzen irribarre polit horrekin. Muxu pila etxekoan partez!



Otsailaren 15an
Zorionak Begoña, zure familiarren partez! Segi horren jatorra! Muxu pilo bat!



Zorionak Luken!!!! Hamar urte bete dituzu. Musu handi bat familia osoaren partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Martxoaren 20a.**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTIAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

KOPi-Fax

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**MALLABIA
1945**

Argazki hau 1945 urte ingurukoa da. Bertan Etxekone baserriko Doroteo Milikua agertzen da 4 alabez inguratuta. Justa, Paulina, Eusebia eta Bittori.

**ERMUA
1942**


Genare Isasi-Isasmendi ezkerrean eta Margari Gorosabel eskuman, Bergarako jaietan. Tren baten lehenengo Maltzagaraino eta handik gero beste baten Bergararaino; plazan dantzaldi batzuk egin eta pozarren berriro Ermura. Horixe izaten zen plana. Dekoratu eder baten aurrean dago lagun bikotea jarrita; ohikoa zen jaietan argazkilariak horrelakoekin etortzea, kamera gutxi zeuden sasoi hartarako erretreatzeko aukera bakarrenetakoa eskainiz jendeari. Urte gutxira ezkondu ziren biak: Genare, Jose Kortazar igorrearrarekin eta Margari, Nizeto Gorritxategi ermuarrarekin.



Eibarko ospitaleak atek ireki zituen urrian eta, ondorioz, Ermuko Etengabeko Arreta Guneko (EAG) ordutegia aldatu egin zuten. Ospitalea zabaldu baino lehen eguneko edozein ordutan zegoen Ermuan arreta jasotzeko aukera (Anbulatorioko zerbitzua amaitzen zenean). Orain, ordea, 17:00etatik 24:00etara lanegunetan eta 08:00etatik 24:00etara jaiegunetan. Hau da, 24:00etatik aurrera arreta jaso behar izanez gero, Eibarrera joan behar dira ermuarrak. Bestetik, ospitale berriak instalazio modernoak, zerbitzu berriak ekarri eta guztiak toki berean batu ditu.

Zer iruditzen zaizkizue Eibarko ospitale berriaren sorrerarekin Ermuko EAG-n eman diren aldaketak?

Guztira 23 bozka jaso dira inkesta honetan.



4% Onuragarria izan da



96% Kaltegarria izan da



ZINEA

- Hilaren 2tik 4era:**
Zehaztu gabeko filmeak
- 9tik 11ra:**
Zehaztu gabeko filmeak
- 16tik 18ra:**
Zehaztu gabeko filmeak
- 23tik 25era:**
Zehaztu gabeko filmeak
- 30etik 1era:**
Zehaztu gabeko filmeak

UMEENTZAKO ZINEA

- Hilak 3:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 10:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 17:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 24:**
Zehaztu gabeko filmea
Ermua Antzokian.
20:30etan.

ZINE-KLUBA

- Hilak 7:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 14:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 21:**
Zehaztu gabeko filmea
- Hilak 28:**
Zehaztu gabeko filmea
Antzokian. 20:30ean.

MUSIKA

- Hilak 9:**
Musika eta dantza jaialdia: Andaluziako eguna.
16:00etan. Antzokian.
Sarrera dohainik.
- Hilak 15:**
Flamenko Kontzertua:
Rocio Márquez.
22:15ean. Antzokian.
Sarrera: 12€
- Hilak 16:**
Soul kontzertua: The Sir
Alligator,s Company.
20:00etan. Lobiano
Kultur Gunean. Sarrera:
10€
- Hilak 20:**
Kontzertua: Alboka
Musika eskolako ikasleak.
19:00etan.
Antzokian.

ANTZERKIA

- Hilak 13:**
"Lyceum Club", La dramática errante taldearen eskutik. 20:30ean.
Antzokian. Sarrera: 10€
- Hilak 22:**
"Claudia", La Conquesta del Pol Sud taldearen eskutik. 22:15ean.
Antzokian. Sarrera: 10€

UMEENTZAKO EKITALDIAK

INAUTERIAK

- Otsailak 28, osteguna. Eguen Zuri**
- 16:00ean: Oilararen jokoa.
- 17:00etan: Diskofesta: Xaibor Dja.
- Martxoak 1, ostirala. Hartzta eguna**
- 18:30etan: Kalejira plazatik.
- Martxoak 2, larunbata**
- 12:30ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 12:30an: Kalejira: Kuadrillen mozorro lehiaketa.
- 17:30ean: Umeentzako txokolatada.
- 18:00etan: Umeentzako erromeria: TTR taldea.
- 19:00ean: Kalejira: Irulitxa txaranga.
- 19:30ean: Umeentzako mozorro lehiaketa.
- 23:00etan: Dj Festa: Los 40 principales.

- Martxoak 5, asteartea**
- 16:00etan: Umeentzako diskoteka.
- 18:00etan: Kale ikuskizuna: "Zeppelin". La baldufa.
- 19:00etan: Kalejira: Ustekabe txaranga.
- 23:00etan: DJ Festa Oihan Vegarekin.

Ekitaldi guztiak Cardenal Orbe Plazan

- Hilak 9:**
Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean. Lobiano
Kultur Gunean.
- 17:00 eta 19:00etan.
Antzokian. Sarrera:
6€

ERAKUSKETAK

Hilaren 12ra arte:
Argazkiak: Bide luzea berdintasunarantz:
Euskadiko emakumeak XX.mendearen. 18etatik 20etara.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

**PRO
arraindegia**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com





**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zoareko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Korabiva 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK
BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOKAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57
IZARRA CENTRE Erakina Zeharkaina, 36, 3º 48200 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA
**BETA**
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• Proiektuak • Kalefakzioa
• Instalazioak • Gaueko tarifa
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak
Diputazio, 13 **943 17 65 25**
 689 23 31 71

ERROTULAZIOA

• Argi errotuloak
• Autoendako errotuloak
• Barne errotulazioa
• Irudi korporatiboa
• Neoia
• Inpresio digitala formato handian
Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behe (Mallabia)
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Ermuko VI. Sagardo eguna

MARTXOAK 9



12:30-14:30 TXOTX!

12:30 MINTZOTX

18:30-AMAITU ARTE TXOTX!

22:00 MASKARADUN DJ-A